



**LURRALDEA & HIZKUNTZA**  
HIZKUNTZA & LURRALDEA  
I. JARDUNALDIAK  
DONOSTIAN  
2014KO URTARRILAREN 16 ETA 17AN

ANTOLATZALEAK

BABESLEA



**LURRALDEA ETA HIZKUNTZA.  
HIZKUNTZA ETA LURRALDEA.  
I. Jardunaldiak.**  
Donostian, 2014ko urtarrilak 16 eta 17

**Egitaraua**

<b>Urtarrilak 16, osteguna</b>	
8:30-9:00	Harrera eta dokumentazio banaketa.
9:00-9:30	<p><i>Sarrera.</i> <span style="float: right;"><a href="#">Bideoa</a></span></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Martin Garitano, GFA</li> <li>• Maren Belastegi, UEMA</li> <li>• Paul Bilbao, Kontseilua, Batzorde Akademikoa</li> <li>• Unai Fernandez de Betoño, UEU, Batzorde Akademikoa</li> </ul>
9:30-12:00	<p><b>1. Lurralde-antolaketa: oinarrizko printzipioak eta ikuspegi desberdinak.</b> <span style="float: right;"><a href="#">Bideoa</a></span></p> <p><i>Lurraldea eta hizkuntza. Geografiaren ikuspuntua.</i> Peio Lozano, UPV/EHU</p>
	<p><i>Lurralde antolamendua. Legelariaren ikuspegia.</i> <span style="float: right;"><a href="#">Aurkezpena</a></span> Natxo Cubero, UPV/EHU</p>
	<p><i>Lurraldea hizkuntzetatik. Bizipen eta kudeaketa moduak.</i> <span style="float: right;"><a href="#">Aurkezpena</a></span> Koldo Telleria, UPV/EHU</p>
	<p>Mahai ingurua. Moderatzailea: Unai Fdz de Betoño, UEU, Batzorde Akademikoa. <span style="float: right;"><a href="#">Aurkezpena</a></span></p>
	12:00-12:15
12:15-14:15	<p><b>2. Arnasguneak euskararen herrian: arriskuak.</b> <span style="float: right;"><a href="#">Bideoa</a></span></p> <p><i>Zuberoako esperientzia.</i> Beñat Etxebeste, Etxalde elkarte.</p>
	<p><i>Busturiako esperientzia.</i> Ziortza Bilbao, Busturiako euskara zinegotzia.</p>
	<p><i>Zubietako esperientzia.</i> <span style="float: right;"><a href="#">Aurkezpena</a></span> Xabier Mikel Errekondo, Espainiako Gorteetako diputatua.</p>
	<p><i>Zeraingo esperientzia.</i> Jakoba Errekondo, Zerain Dezagun Fundazioa</p>
	<p>Mahai ingurua. Moderatzailea: Dabid Anaut, euskara teknikaria</p>
	14:15-15:30



15:30-17:30	<b>3. Arnasguneen garapena Euskal Herritik kanpo.</b> <a href="#">Bideoa</a>
	<i>Aland Uharteak.</i> Elisabeth Nauc�ler, Finlandiako parlamentuko kidea. <a href="#">Aurkezpena</a>
	<i>Flandria.</i> Wilfried Vandaele, Flandriako parlamentuko kidea. <a href="#">Aurkezpena</a>
	<i>Gales.</i> Meirion Davies, hizkuntza-eragilea. <a href="#">Aurkezpena</a>
Mahai ingurua. Moderatzailea: Paul Bilbao, Kontseilua	

Urtarrilak 17, ostirala	
9:00-9:30	Harrera.
9:30-12:30	<b>4. Lurralde-antolaketa eta gizarte erantzukizuna.</b> <a href="#">Bideoa</a>
	<i>Lurralde-antolakuntza eta komunitatearen garapena.</i> Igor Ahedo, UPV/EHU
	<i>Lurraldearen garapena eta euskara.</i> <a href="#">Aurkezpena</a> Zigor Etxeburua eta Ugaitz Iturbe, GFA
	<i>Arnasguneak euskararen normalizazio-prozesuan.</i> Iker Salaberria, Kontseilua <a href="#">Aurkezpena</a> , eta Miren Segurola, UEMA. <a href="#">Aurkezpena</a>
12:00-12:30	Atsedena
12:30-13:00	<b>5. Ondorioak eta etorkizunerako erronkak.</b> <a href="#">Bideoa</a> Batzorde Akademikoa: Unai Fernandez de Beto�no, Paul Bilbao eta I�igo Urrutia.  <a href="#">Ondorioak eta erronkak dokumentua.</a>



## SARRERA

**Unai Fernandez de Betoño,  
Jardunaldiko Batzorde Akademikoko kidea.**

Lurraldea eta hizkuntza. Edo, zehazkiago, lurraldearen antolakuntza eta hizkuntzaren aldaketa. Edo, gure Euskal Herri txiki honetara ekarrita, hirigintza eta euskara. Erlazio ahaztu hori dugu aztergai jardunaldi hauetan, hurrengo hiru helburu nagusiekin:

- Lehen helburua geografiaren eta hizkuntzaren arteko harreman estuaz hausnartzea da. Zeren eta inork ez du kolokan jartzen lurraldearen eta hirigintzaren arteko erlazioa, baina aditu gutxi batzuk dira —hizkuntzalaritzaren alorrekoak gehienak— geografia fisikoaren eta hiztun-komunitateen arteko erlazioaz aritzen direnak.
- Bigarren helburua lurralde-antolakuntzak eta hirigintzak euskararen hiztun-komunitatearengan duten eragin zuzenaz ohartaraztea da. Zeren eta, lurraldea eta hizkuntza erlazionatuta baldin badaude —eta hipotesi horretatik abiatzen gara; jardunaldien amaieran ikusiko dugu zuzen ote gabiltzan—, lurralde-antolakuntzak —politikariek eta teknikariek paperezko planoetan erabakitzen duten plangintza ustez neutro horrek— eragin zuzena edukiko du hiztun-komunitateen bilakaeran.
- Eta hirugarren helburua hirigintzak euskal komunitatearengan duen eragina kontuan eduki dadin hartu beharreko neurriez hausnartzea da, bai hirigintza-plangintzak sortzen dituen kalteak murrizteko bai sor litzakeen onurak indartzeko. Zeren eta hizkuntza-politikaren alorrean hartzen diren neurriak, behar-beharrezkoak izanagatik ere, ez dira nahikoak gizartearengan, eta, ondorioz, hiztunengan eragiten duten faktore ezegonkortzaile guztiak aurreikusteko eta zuzentzeko. Zentzu horretan, bada garaia lurralde-antolakuntzaren eta hirigintzaren alorretan ere hizkuntza-irizpide erabilgarriekin eragiteko.

Uste dugu kuriositatea piztea lortu dugula, eta hori ez da gutxi. Espero dugu jardunaldiak interesekoak izatea, eta, gutxienez, gogoetarako bide ematea.



## 1. LURRALDE-ANTOLAKETA: OINARRIZKO PRINTZIBIOAK ETA IKUSPEGI DESBERDINAK.

### **Lurraldea eta hizkuntza. Geografiaren ikuspuntua.** Peio Lozano, UPV/EHUko irakaslea.

Geografiak, oso zabala den ikasketa eta ikerketa objektua du: lurraldea. Lurraldean, mota guztietako agenteak; fenomenoak; dinamikak; funtzioak eta loturak, bat egiten dira. Faktore bakoitza lurraldean modu batera ala bestera islatzen dela esan dezakegu. Izan ere, gizakia berak, bere historiaren zehar, lurraldea aldatu eta egokitu egin du. Hori gutxi balitz, lurraldeak ere bere berezitasunak aurkezten ditu. Horrela ba, lurraldeak eta gizarte bakoitzak badituztela berezko ezaugarriak (beste tokietan ematen ez direnak) esan dezakegu. Honek, originaltasunagatik berebiziko balioa ematen dio errealitateari.

Baino lurraldea, esparruaren edota marko fisikoaren arabera aldatzen badoa, zer esan beharko genuke hurrengo dimentsioari buruz: denborari buruz, alegia?. Gizarte bakoitzak bere erara egokitu egin badu lurraldea, lurralde bakoitzean, denboran zehar, ezberdinak dira eman diren gizarte motak, ezta?. Hori kontuan izango bagenu, gehi duela oso gutxi arte lurraldearekiko izugarriko lotura sakona bazeukala gizakiak... gure lurraldearen barruan, palimpsesto baten antzera, hizkuntza ezberdinak eta era ezberdinak topatzen eta gainjartzen direla onar genezake. Lurralde berdinean, pergamino baten bezala, gizarteak eta talde etniko bakoitzak "idatzi" egin ditu bere izenak, bere kodeak eta, azkenean, bere idiosinkrasia islatu du.

Horrela ba, Euskal-Herriko lurraldean mota askoko izenak eta hizkuntzak finkatu eta erabili izan dira; iberoraz, zeltiarrez, erromatarrez, arabieraz, gaskonieraz, gazteleraz... eta noski; Euskaraz. Hizkuntza bakoitzak bere aztarnak utzi dizkigu. Nahiz eta izugarri interesgarria, baino aldi berean astuna izan daiteken eztabaida zientifiko sakon baten aurrean aurkitu, gaur egun, ezin da ukatu hizkuntza bakoitzak eta talde etniko bakoitzak utzi egin dizkigula bere aztarnak baita guregana, izen eta hitz batzuk behitzat, ailegatu egin zaizkigula.

Hala ere, gure populazioa, paisaia eta lurraldea, duela oso gutxi arte, nekazaritzan, abeltzaintzan baita oihantzan oinarritzen bazen, gaur egun horiek dira, hain justu, ahulenak diren produktibitategintzak. Nekazal gizarte horiek oso erlazio estua aurkezten zuten lurraldearekiko baita izadiarekiko ere. Horrela ba, non goldatu behar zen edota nora eraman behar ziren artaldeak zehazteko, mota askoko toponimiak genituen; lehendabiziko toponimia (sektore inportantenen izenak), bigarren motatako toponimia (sektore txikiagoak izendatzen zituen) baita hirugarren motatako toponimia (ia baserri bakoitzaren barruan erabiltzen zena). Hori gutxi balitz, eguraldia eta klimari buruzko oso aberatsa zen hiztegia ere erabiltzen zen. Baita beste arloei zegozkiena ere... Gaur egun, mota horretako "jerga" desagertzeaz aurkitzen da.

Baino azken aldiotan, Europan nahiko zabalduak zeuden lurralde politiken ildoak jarraituz, lurralde antolamendua eta kudeaketa prozesuak martxan jarri ziren. Badaramagu, behintzat, honen inguruko 25 urteko bilakaera. Honek kontzeptu eta hitz berriak sortzen behartu gaitu. Inork ez zekien, duela oso gutxi arte, lurralde antolamendu bera zertan zetzan, ez eta zenbait kontzeptuak ere existitzen zirela. Honen ildotik oso berriak eta erabiliak diren hitz eta kontzeptu berriak sortu izan behar ditugu. Hala ere eta batzuetan oso konplexuak egiten ditugulako, ia inork ez ditu erabiltzen edo ia inork ez da ausartzen erabiltzen. Gure esku dago kontzeptu eta "hizkuntza" berezi hori zabalduz joatea eta ondo erakustea. Honen inguruan ere berebiziko erronka bat aurkezten zaigu.



## **Lurralde antolamendua. Legelariaren ikuspuntua.** **Natxo Cubero, UPV/EHUko irakaslea.**

Lurralde antolamendua da lur zoruen erabilerak eta mugak zehazteko modua edo baliabidea. Horretarako, Administrazioak baliabideak sortzen ditu eta kasu gehienetan arauak izaten dira. Planak eta programen bidez herritarrek bete behar dituzten obligazioak ezartzen dira. Hala ere, badaude beste tresna juridiko batzuk lurralde antolamendua osatzen dutenak. Kontuan hartu behar da lurralde antolamenduak lurzoru mota ezberdinak ukitzen dituela eta horietan beste administrazio batzuek eta, hortaz, beste arau batzuek esku hartzen dute. Adibidez, kostaldea arautzeko eskumena Euskal Autonomia Erkidegoari ez ezik, Estatuari ere dagokio. Gainera, kasu horretan Espainiako Konstituzioak berak eskumen eskusiboa eman dio Estatuari.

Lurralde antolamendua burutzerako orduan, esparru ezberdinen araubideari so egin behar diogu, lurzoruen erabilerak ere finkatzen dituelako. Autonomia Erkidegoek onartzen dituzten planek aurreikuspen horiek errespetatu behar dituzte. Lurralde Antolamendua ingurugiroari eta ekonomiari lotutako alorrekin interakzio hutsean dago. Ikuspuntu juridiko eta politikotik Administrazioak lotura horiek kontuan hartu behar ditu, beste botere eta agintaritzekiko elkarlana burutuz. Lehenik, lurralde antolamenduari dagokion eskumenak aztertuko ditugu, adieraziz zein administrazioek egikari dezakeen, eta bigarrenik, modu orokorrean azalduko dira nolako eragina izaten duten esparru ezberdinek ekonomia alorrean zein ingurugiro alorrean.

Bestalde, aurkezpenean hiru gai ezberdinei aurre egin behar diegu. Lehenik, aztertu behar da zein maila duten planek eta lurralde antolamenduaren arauak. Haien onartzeko prozeduran zehaztu behar da zein administrazioek parte hartzen duten eta zein heinetan herritarrok parte har dezakegun. Gai honetan ezin dugu ahaztu administrazioek elkarlana burutu behar dutela, eta zio politikoak direla eta, erabaki koherenteak lortzea ez dela erraza. Beraz, koordinazioa eta parte hartzeko baliabideak ez dira nahikoak planaren legitimotasun osoa erdiesteko. Teorikoa baino, arazo praktikoa da, zio ezberdinen menpe egoten delako.

Lurralde antolamenduak beste arlo edo esparru batzuekin loturak dauzka, izan ere, lurraldeari eragin diezaioketen gaiak arautu eta planifikatu egin behar dira beste tresna batzuen bidez. Lurralde Plan Sektorialek aurreikuspenak jasotzen dituzte hainbat esparrutan, esaterako, kostaldeetan, ibaietan, ingurumenean, telekomunikazioan edo ondare historiko eta kulturala. Azken atal honetan hizkuntzak bere garrantzia azaltzen du, herritarren arteko komunikazioak eta gune kulturalen garapena baldintzatzen dituelako. Eusko Jaurlaritzak oraindik ez du onartu behin betiko plana arlo honi buruz, baina izapidetzen ari da proiektua eta horretan lurralde eta hizkuntzaren arteko loturak eta elkarrekintza agerian utzi behar dute herri erakunde guztiek. Lurralde antolamenduaren artezpideetan gertatzen ez den bezala, Administrazioak hartu behar duen neurri zehatzak jaso behar dira Plan Sektorial horretan, gure hizkuntza sustatu, kontserbatu eta garatzeko asmoz.

Azkenik, planak onartzeko prozeduretan eta beraiek sortzen duten ondorioetan hainbat interes agertzen dira. Ekonomia alorrean jarduten duten elkarrekin, industria sindikatuak kasu, eta ingurugiroan lan egiten dutenak lurralde antolamenduaren eredu ezberdinen alde adieraz dezakete. Lurralde antolamenduak aurre egiten dion arazo eta erronka nagusia hau da: talde horien artean akordioak erdietsi.



## **Lurraldea hizkuntzetatik. Bizipen eta kudeaketa moduak.**

**Koldo Telleria, UPV/EHUko irakaslea.**

Bizi garen ingurua gure nortasun eta kulturaren adierazle garbia da, betidanik gizakiak bere ingurua moldatu izan du, garaian garaiko beharrak asebetetzeko. Hasieran bizitzarako beharrezkoak zituen babesa eta elikadura lortzeko ziren bere inguruan gauzatzen zituen eraldaketak; lurra landu, zuhaitzak aldatu, ur bideak egin... Gizakia talde lanean antolatu eta tokian tokiko inguruari egokitzen joan da, lurraldea bere beharretara eraldatuz. Bizi mailan aurrera egin duen heinean ustezko beharren mailak ere gora egin du. Garai bakoitzeko balore eta ikuspuntuak arabera eraldatu dugu gure ingurua. Eraldaketa hauek gizakiak bizi duen inguru horrekin duen harreman mota erakusten digu. Beraz nor garan, nola pentsatzen dugun eta zein diren gure baloreak bizi dugun lurraldean islatzen ditugu. (Escobar, 2000)

Bide honetan lurralde antolaketa lanetan Parte hartzea ezinbestekoa da, ingurua ezagutu eta bertan sortu diren hartu emanen ulermenetik etorkizunerako antolaketa egokiak osatu ahal izateko. Honetarako herritarrekin elkarrizketa zuzenak, bai bakarka zein taldetakoak ezinbestekoak dira. Teknikoak dugun ikuspuntua tokian tokiko ezagutza eta jakintzekin nahastuta soilik bideratu bai dezakegu gure lurralderako etorkizun zentzuduna.

Bestalde gure ingurua eta lurraldea ekosistema oso bezala ulertzea ere ezinbestekoa da, hau da sistema konplexu eta ireki bat bezala. Non pentsaera ekosistemikoak erakutsi digun edozein aldaketa txikik sistema osoan eragin izan dezakeela eta denak duela hartu-emanaren denarekin (Morin, 1990).

Ikuspuntu honetatik lanean, aurkeztu den hausnarketan parte hartzea hartu da oinarri lurraldearen egungo egoera zein etorkizuneko eraldaketarako bideak zuzendu asmotan. Lurralde antolaketarako parte hartze lanen hastapenetan, parte hartzaileen perfil eta hizkuntzetatik zenbait gogoeta sortu dira. Gure lurraldea sistema konplexu ireki bat den heinean, bertan sistema ezberdinez osatutako errealitateak topatzen ditugu. Naiz eta errealitate bat izan, ikuspuntuak, ulertzeko moduak, beharrak eta nahiak anitz dira lurralde berdin baterako. Honen jakitun izatea ezinbestekoa da parte hartze prozesuak zuzentzeko orduan eta lurraldearen antolaketa eraginkor eta aberats bat planteatzeko momentuan.

Egoera honetan eta soziologiatik jasotako SEIC modeloari jarraikiz sistema ezberdin bakoitzak erabiltzen dituen moduak aztertuz, sistema ezberdinek beraien artean dituzten hartu emanak ulertzera gerturatzeko bideak zabaltzen zaizkigu (Tabara,2011). Sistema hauek aspektu askoren arabera sailkatu daitezke baina hemen aurkeztuko den hausnarketan hizkuntza sistema ezberdinek lurraldea ulertzeko, beraz bertan eragiteko, dituzten modu ezberdinak aurrekustera gerturatzen gaituen ikuspuntu bat aurkeztu nahi da. Lurralde antolaketan kontutan izan beharreko aspektu anitzez gain hizkuntza sistema ezberdinek lurraldearekiko duten hartu eman ezberdina, ondorioz jakintza eta ezagutza ezberdinak jokoan jarri.

Koldo Telleria Andueza

### **Bibliografia**

- 
- Escobar, A. (2000), El lugar de la naturaleza y la naturaleza del lugar: ¿globalización o postdesarrollo?. Buenos Aires, Argentina : CLACSO, 2000.
  - Morin, E. (1990). Introducción al pensamiento complejo. Décima reimpresión 2011. Editorial Gedisa.
  - Tabara, J.D. (2011) Teoría socioambiental y sociología ecológica. En: Teoría de la sociología moderna. S. Giner. Madrid Editorial Ariel 2011.

## **Mahai ingurua.**

**Moderatzailea: Unai Fernandez de Betoño, UPV/EHUko irakaslea, UEUkidea.**



## 2. ARNASGUNEAK EUSKARAREN HERRIAN: ARRISKUAK.

### Zuberoa.

#### Beñat Etxebeste, Etxalde Elkarte.

Gaia: Etxebizitza.

Gure gaiaren testuingurua: Ipar Euskal Herria (Zuberoa-Baxenabarre-Lapurdi).

#### Lege zaharraren arraberritze egitasmo bat?

##### Egoera:

1-Jabetasun pribatuaren lanbroa:

- Jabetasun pribatuak nahi du gauzak, ontasunak, norbaitenak izatea. Norbait hori, hilkorra edo mortala delarik, jende delakoan. Denak jin gira, itzuli bat lur honetan egin eta, behin betiko joateko.
- Hiltze horretan, familiak estatuari "successione" legar batzuk baditu ordaintzeko, batzuetan jendeak, horiek ezin ordainduz, behartuak dira ontasunen saltzera.

2-Jendeen arteko jabetzeko kompetentzia:

- Jende askoek nahi dute Iparraldeko kostaldean bizi.
- Lur eremuan edo etxebizitzaren sailean, kompetentzia desorekatu bat sortu da jendeen artean. Ahal oso desberdinak badira bertako jendeen eta kanpotik etortzen diren jendeen artean. Azkenean, hiri handien erdian gertatzen dena, gure Iparralde jendez gutti den eskualdean ere gertatzen da.

3-Bizi diren tokian egon ahal izateko, jendeek edo alokatzen edo erosten dute beren bizitokia.

Bi kasuetan, alokatzaile edo jabe izatez, jendeak mailegu bat ordaintzen du. Pobre bizitzen. Aberats hiltzen. Legar gehiago ordaintzen. Egoitza merkatu zabalean berriz pasatzen. Garestitzen. Eta aitzina itzuli, geldi ezin errota.

4-Euskal Herriko lege zaharraren arabera:

- jabegoa pribatua ez zen hain pribatua. Familiarra zen. Ber etxaldeko bi belaunaldiak (zaharrenarena eta gazteenarena) partekatzen zuten.
  - Erabiltzaileari emanik zen lehentasuna. Bikote batek ez bazuen haurrik bere bizitzan, edo behar zuen iloba bat adoptatu edo etxaldea utzi haurrak zituen zuen anaia edo arreba bati.
- Antolakuntza horrekin, etxaldeen iraun dute, hori dakigu, baina ere: erabiltzaileek zuten jabetasuna, familiak atxikitzen.

##### Etxalde elkartearen sekretua:

Etxebizitza edo zernahi lur eremu edo bastiza (eraikin) erostea, elkartearen izenean. Elkarte da jabe.

40 partaide, jende "hilkor" gaude. Denak bazkide. Ez parte sozial batzuen jabe.

Elkartek, maileguak ordaindu ondoan, ez duke alokairu gorarik ordainarazi beharrik. Alokatzailak ez dira pobre bilakatuko, "successione" legar eta ondoreneko maileguengatik.

Elkarteko estatuetan, apuntatua da, bazkide guziak zentzen bagira, gure lanaren segidaren eramailerik aurkitu gabe, ondasunak hiriarren jabegoan sartuko direla. Holaz, jabegoa kolektiboan jarraikiko dute.

##### Ekintza:

2007an hasirik, baditugu 6 pisu, ostatu-toki bat eta 9 garaje erosirik.

Denak Zuberoan. Han da merkatu apalena. Jende falta dugu egitasmoaren Lapurdin zabaltzeko.

##### Gerora:

Gure gaurko beharrak:

- gure egitasmoaren ezagutaraztea;
- etxebizitzaren aurkitzea;
- lanen antolatzea.





## **Busturia.**

### **Ziortza Bilbao, Kultura, kirola, hezkuntza eta euskara zinegotzia.**

Murueta eta Busturia Bizkaiko Busturialdean daude kokaturik, Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren bihotzean. Noiztik dago ontziola Muruetan? 60. hamarkadatik Murueta Busturiaren ondoan dagoen herritxo bat da baina ontziolak Busturian izan zuen eragina nabarmena izan zen bertoko San Kristobal auzoan langileentzako etxebizitzak egin zituztelako, berak ontziolak aginduta. Bi eraikinetan banatutako 48 etxebizitza izan ziren hain zuzen ere San Kristobalen egin zirenak 1967. urtean, eta bertara horrenbeste familia iritsi ziren Espainiako hainbat lekutatik etorriak, euren artean Extremadura, Zamora, Galizia...

Horrek guztiak zalantzarik gabe eragina izan zuen herrian, batetik biztanleria kopuruak gora egin zuelako eta bestetik, hori azaltzera etorri baikara hona, euskarari dagokionez izan zuen eragin nabaria. Busturia 5 auzok osatzen dute Axpe, Altamira, Paresi, San Bartolome eta San Kristobal. Herri euskalduna da Busturia eta orduan ere hala zen baina Espainiako etorkin haien etorrerak eta batez ere auzo bakarrera etortzeak, San Kristobalera, auzo horretan "geto" moduko bat sortzea ekarri zuen, honekin esan nahi dut erdaldun horiek guztiak bertan auzoan pilatu zirela eta bertako euskaldunen hizkuntza ohituretan eragin negatiboa izan zutela. Beste 4 auzoak askoz ere euskaldunagoak izan ziren eta orain ere horrela dira, nahiz eta gaur egungo errealtatea aldatuz doan, hau da, auzo erdaldunena izan arren, bertako herritar asko euskaldundu egin direlako. Honetan zer esan handia izan du herriko eskola publikoak. Sasoi hartan etorri ziren familia guzti haien seme-alabak eta Busturiko haurrak eskola berera zihoazen, erdal ereduak noski, bera baino ez zegoen eta, baina urteak aurrera egin ahala, eskolan D eta B ereduak hasi zirenean, apurka-apurka familia etorkin haiek euren seme-alabak eredu horietan eskolaratzen hasi ziren. 1996-97. ikasturteetik aurrera herriko eskolan D ereduak bakarrik dago, 1995-96. ikasturtean, 8. mailako talde bakarra zegoen B eredukoa eta hortik beherako ikasle guztiak D eredukoak ziren.

Lehentxoago esan dut, gaur ere auzorik erdaldunena San Kristobal dela, baina apurka-apurka hori aldatuz doa egoera normalizatu batera goazelarik, errealtate euskaldunago batera.

Gaur egun eraikin bi horietan familia euskaldun asko bizi dira eta beraien parte hartzea handituz doa herriko ekintza kulturaletan... Adibidez, haietariko asko udalak antolatzen dituen euskara eskoletan matrikulatuta daude beraien seme-alabei eta ilobei euskaraz hitz egin ahal izateko eta eguneroko bizitzan lagundu ahal izateko, apurka-apurka gune horretan ere euskararen presentzia nabaritzen doalarik.



## Zubieta.

Xabier Mikel Errekondo, Espainiako Gorteetako diputatua.

### Lurralde Antolamendua VS Herri Eredua

Lurralde antolamenduak **eragiten ote du** herri baten izaera eta garapenean?

Instituzioetan, eskumenak eskumen, planoetan, trama bat ala bestea margotzen dutenean aintzat hartzen ote dute politikariek paper zuri horren azpian badela herri bat, bizi den herri bat? Inguru, hizkuntza, ohitura, kultura, harreman, balore eta bizi modu jakin batean diharduen herritarren komunitatea?

**Nik** argi daukat, eta arrisku handirik hartu gabe, nago **denok ere** hala pentsatzen dugula:

Lurralde antolamenduak inolako zalantzarik gabe eragiten du herri ororen eremuan, Bai!

Lurralde Antolamendua Herri ereduaren garapenerako elementu, tresna funtsezkoa da. Baina, tresna horren erabilera **norabide batean ala bestean** erabil daiteke. Alegia  
ZER ZEREN MENPE.

Instituzioak eta lege eta arauak (nola Lurralde Antolamendua)

Herriaren eta herritarren baloreak sendotzeko **ala**

Interes ilunen mesederako (edo ezinargiakoak)

NOR NOREN MENPE.

Politikari eta teknikari zuzenak **ala** ustelak...

---

Azpimarratu nahi dut, dena den, **bestelako politikek ere eragiten dutela** herri eremuan; nola dirulaguntza politikak, elkarteen jarduerak erraztea (lokalak, aholkularitza, koordinazioa, etab). Politika hauek zehatzeziak direla irudi badaiteke ere, azkenean egiturazkoak bihurtzen dira, herriaren ta herritarren dinamika baldintza dezaketelako.

---

**Donostia** bezalako hiri handi batean bai; baina are gehiago **herri txiki** batean, biztanle gutxikoa (Gipuzkoan ia 60 dira 5000tik beherakoak) ezaugarri jakin batzuen inguruan bizi diren herritarrak, bizi den herria. Lurralde antolamenduak, lurraldea osatzen duten elementuei diete, hain zuzen, eragiten; lagungarriak ala kaltegarriak izan. Sarriegitan ez dira printzipio nagusienak ere kontutan hartzen (adibidez, interes publikoa eta herritarren parte hartzea egiturazko erabakietan) eta politikariek planoen atzean dagoen herria ez dute ikusi ere egiten, bestelako interesek itsututa gehienetan.

Ez da nire helburua maila akademikotik ez teknikitik heltzea gaiari; hurbileko testigantzatik eginiko ekarpena egitea baizik. Eta, ahal dela, gako hainbat identifikatzea, herri eredu jakin bat bermatze aldera.

## ZUBIETA

Bere herri izaera aspaldi galdu eta egun auzo benetan berezia den Zubietaz arituko gara, beraz.

Zubieta, Donostiako erdigunetik 10Km-ra eta Usurbilgo erdigunetik 3Km-ra dagoen 510 biztanle inguruko auzoa da. Lurzoruaren 2/3 Donostian (185.000biz., 295b., 1180an sortua) eta 1/3 Usurbilen (6.100biz., 215b., 1371n sortua) kokatuta dago.

Donostiako lurrazalaren parte bada ere, irla bat da. Auzogune hurbilenena Añorga da, 5Km-ra.

Usurbilgo lurrazalaren parte da, jarraikoa; auzo hurbilenenak Santuenea eta Kalezar dira; bien kaxkoak 1,5Km-ra daude.

Lasarte-Oriako kaxkoa (18.000biz., 1986an sortua) 2 Km-ra.

Eliza bakarra, Usurbilgo Elizbarrutikoa. Jabetza, D ta U erdibana: Ate bi simetrikoi: D+U. Ordulari bana begira: D+U.

### Zubieta, herri izaeradun auzo bikoitza.

Beraz, herri bion auzo soil baino dezentez gehiago. Izaera propioaren sena gordetzen duena. Datu batzuk ematearren:

**Zubietako unibertsitatea.** (71.) (1503 urtean: lurralde autonomia, bere buruaren jabe zena guztiz, eta zein "villa" rengana bildu erabakitzen zuena, hain justu, justizia administrazioa eramateko)

Zubietak beranduen **1379an** galdu zuen bere independentzia.

**1869an**, Zubietako **Komunitateak bere ondare osoa pribatizatu egiten du eta 631 hektarea komunal banatu 21 jauntxo artean, Desamortizazio legearen beldur. Alamandegia eta eleizaren kontra dagoen eranskina: seroraren etxea.** Egund, orduko Komunitate pribatuaren ondare dira biak.

**1916** hipodromoa inaguratu: alfonso XIII + reina Victoria Eugenia



Norma Foral4/1995 "enclave de características unitarias perteneciente a los terminos municipales de Donostia y Usurbil" (236.)

**1996. DESLINDEA. Donostiako eta Usurbilgo lurren arteko trukea. Geroztik, Batzarraren funtzioak ondorengo hauek dira:**

- Zubietako arazo zehatzei buruzko informazioa luzatu Donostiako eta Usurbilgo Udalei.
- Beraien inguruko gaiez aholkatu udal zerbitzuei.
- Donostiako eta Usurbilgo udaletan, bai elkarrekin bai banaturik, aztertuak izango diren proposamen zehatzak egin.
- Azterketa eta proiektuei buruz udalek erabakiko dituzten akordioak beteak izan direla ziurtatu.
- Udalek Batzarrari ematen dizkieten fondoak administratu eta haien kontu zuzena eman. Alegia, Batzarraren eta auzoko zerbitzu publikoaren mantenturako eta bere gain jartzen dituzten ekintza eta obra txikietarako fondoak administratzea.
- Donostiako eta Usurbilgo udalek bere gain jartzen dituzten beste edozein ahalmen.

**Gaurko Zubieta. Arriskuan dagoen Zubieta.**

- Bere izaera propioa berreskuratzen-bilatzen ari den auzo-herria.

Euskara: %61,5 erabilera(Donostiako auzoen artean altuena ; ondoren Igeldo: )

Hezkuntza: Eskola txikia(D), Landaberri ikastola(D), Lanbide eskola(U).

Mugikortasuna(Bus-taxia, Usurbil-Zubieta-Lasarte-Hospitala, Donostia-Añorga-Urbil-Zubieta-...?)

Ingurumena. Natura. Hiri hondakinak. Landa eremu zabal a(4Km karratu)

Kultura: ohitura ohikoak:bertsolaritza, euskal kantuak, jaialdiak, jaiak (Santioak, Euskal Jaia, Eskola Txikien jai, ... laguntzak Donostiak ta U-ek)

Kirola. Futbola(Erreala...), Hipodromoa, Errebotea, JokoGarbi(bertako, benetako),txirrindulariak

Hirigintza: etxebizitza gehiagoren beharra.

...

**Lurralde Antolamendua. Donostiako PGOU, Usurbilgo AASS, PTS,...**

Bilakaera. Zubietarrak aintzat hartuak izan dira?

Donostia

Ez. Artzabaleta ta Eskuzaitzeta soilik teknikoak bidali zituzten Zubietarrak informatzera, dena erabakia zegoelarik.

Usurbil.

Bai. Lizarraldeas-9, Donostia ta Zubietarekin bat.

PTS(ej+GFA)

Ez.Industriagune erraldoia, kartzela, kuartela?(azkenean ez)

**Usurbil. Zubietar gehienak Usurbilerako joera dute.**

- Euskaraz bizi
  - o Herri euskalduna, baina hobetzeko asko:
    - Euskara eremuak zaindu: iragarkiak, txartelak(obra, eskaparateak,...)
    - Udal eremuan euskara bermatu, zaindu. Fakturak(hornitzaileekin), udal eraikinetan euskara zaindu(oiardo: gimnasioko musika, etab)
    - Zabalkundea: eremuak zabaltu: komertzioak, kanpotik datozenak(publizitatea, etab)
    - Euskara balorean jarri (zuzenean: UEMA, TELP, formakuntza, etab. Eta zeharka bertako dinamikan naturalki txertatu ta zaindu: bertsolaritza, antzerkia, musika, hitzaldiak, kirola[kiroldegian, kirol mota batzuetan oraindik erdara nagusi da]
- Herria bizi: herri bizia, nola?
  - o Komertzio txikia, balorean jarri
  - o Kultur dinamika
    - Dirulaguntzak elkarrekin(ingurumena, osasuna, helduak, kirola, kultura sustatzaileei: kultura plana 2011-2015)
    - Herria bizi = kalea bizi = elkar harremandu = kale antzerkia, jardunak kalera ekarri(kirola plazan, Askatasuna plaza, dema plaza, ahalik eta parte hartzaileenak: Erle Eguna, Sagardo Eguna, Nekazari Eguna, kale antzerki eguna etab)
    - Ikastaroak: teoriko-praktikoak: margoak, zeramika, bertso eskola, sukaldaritza, kantu



- jira,
- Musika taldeak x 8. Laguntza, kontzertuak, ...
- Herriaren tamaina eta antolaketa.
  - o **Mugikortasuna** zaindu. Zerbitzu publiko bakarra: Taxi-busa eta Lurraldebusa. herriko zerbitzuak erabil daitezzen, denengana irits daitezzen (bus taxia: anbulategira ekartzeko, auzoguneak komunikatzeko, herri sena indartzeko, harro egoteko; ospitalera eta inguruko herrietara busa: zerbitzu publiko indartsuak)
  - o Mugikortasunean eta zerbitzu publiko orokorretan euskara bermatu.

Herria bizitzen duen herritar euskaldun eleanitzez osatutako herria.

### **Ondorioa:**

Herri bat edo auzo bat nolakoa izatea nahi “dugun”, nahi bezalako ezaugarriekin, bere izaera eta garapenean **ahalegintzea** inistutzio eta politikoen zeregina da. Argi izanik politikariek baino, ordezkatzan duten herritarrek, auzotarrak direla aintzat hartu beharrekoak: Parte Hartzea.

Lurralde Antolamenduak ez badu herriaren nolakotasuna %100ean zehaztuko, bai duela eragiten, bai dezakeela herri horren ezaugarriak artifizialdu, suntsitu, galdu arazi, eta beste zerbait izatera bultza.

Beraz, herri eredia bermatzeko, bai Lurralde antolamenduan eta bai gainontzeko arloetan ezinbestekoa da ahalegin benetakoa.

- **Ahalegin benetakoa.** Emaitzarekin bermerik inoiz ez, baina urrun ez. Batez ere parte-hartze zabalarekin.
- **Helburuak** argiak izan badaitezke ere, **lehentasunak** ezarri behar izaten dira gehienetan, baliabideen eta eskumenen arabera edo uneko urgentzien arabera (Erraustegia EZ!). Osasun arloan, hizkuntzan, hezkuntzan, ingurumenean, berdintasunean, herri bizitza motan, lan eredian (1. sektorea, 2. 3. ), etab.
- **Mehatxua:** Udalez gaindiko instituzioek erabakitzen dute, sarri, zer erabilera eman bertako lurzoruari, interes publikoaren izenean, eta bertako herritarrek aintzat hartu gabe. [Zubieta: Ciudad del Transporte, Mercabugati (Donostia); Eskuzaitzeta + Artzabaleta (Donostia + PTS-GFA+ej); Espainiako Gobernua(fracking)].
- EUSKADIKO LURZORUAREN ETA HIRIGINTZAREN LEGEA / 30. orrialdea
  - o 1. Art. Lege honek hirigintza arautuko du
  - o 2. **Hirigintza.**
    - 1. Hirigintza eginkizun publiko da. Zereginak:
      - a. lurzorua erabili edo baliatu
      - b. lurzorua hirigintzaren antolamendua egikaritzuz eraldatzea. Hirigintza eraldaketa hori urbanizatzearen eta eraikitzearen bidez gauzatzen da.
      - C. Eraikitzea
      - D. etze, eraikin eta instalazioak erabili zaindu eta berritu.
    - 2. lurzorua = naturala eta eraldatutakoa. Eraikina =eraikitako lurzorua. Lurpea eta hegalkina.
    - 3. Zeregin publiko hori garatzeko, Administrazioaren ahalmenak :  
...  
. **herriarren partaidetza** bermatu , sustatu eta bideratzea.
    - 4. **horretarako Printzipio Orokorak hartuko dira oinarri.**

### **3. garapen eramangarriaren printzipioa.**

1. Naturaren baliabideak zentzuz eta modu eramangarrian erabili behar dira, horretarako honako lurralde-eredua finkatu behar da:

a) ekonomia eta gizartea modu eramangarrian garatzen dituzten kontsumo- eta ekoizpen-prozesuak lagundu behar dira.

b) politika publikoan bezala jarduera pribatuan, ingurumenaren eta gizartearen garpena elkarri ongi uztartu behar zaizkie guztiona den natura eta hiri ondarea ondorengoei osasuntsu eta orekan uzteko.

2. Garapen eramangarriak pertsona guztiei eman behar die gozatzeko aukera: naturaz, inguruaz, kultura, arkeologia, historia, arte eta arkitektura arloetan.

4. **Interes publikoaren** nagusitasunaren printzipioa
5. Hirigintzako plangintzaren eskumenaren printzipioa
6. Hitzartzearen printzipioa
7. Hirigintza-antolamenduaren koherentziaren printzipioa



8. **Herritarren parte-hartzearen** printzipioa. Beti ez bada ere, gehienetan beranduegi ematen zaio herritarrari parte-hartzeko aukera. Ia antolamendua erabakita dagoenean. Hasieratik behar lukeenean izan partaide.

9. Jendaurreko informazioaren printzipioa



## **Zerain.**

**Jakoba Errekondo. Zerain Dezagun Fundazioko arduraduna.**

### **Zerain paisaia kulturala.**

**Paisaia eta iraunkortasuna.**

**Ondarea eta Herrilana dira etorkizun bakarra.**

Gipuzkoa hegoaldeko herri txiki bat da Zerain, 267 biztanle. Mendi aldeko herriek XX. mendean jasandako hustutzearen adibide argia da. Mende horren azken laurdenean zeraindarrek elkarlanean herriaren biziraupen egitasmoa abiatuta zuten, "Irautetik Bizitzera" deitu genuen. Proiektuak bizi-bizi dirau eta honi esker, egun herria hazten ari da. Europako eredu gisa jarri ohi da Landa Garapen Integral proiektuen artean. Hiru larretan bazkatzen da gure herri proiektua: herritarren bizitza kalitatea, gaitasun endogenoak eta etorkizun ekonomiko iraunkorra. Hiru larre hauek batera zaintzea, jorratzea, hobetzea eta sustatzea da gakoa.

Herriaren garapenaren oinarria ondarea da. Ondarea, bere adierarik zabalenean: materiala, inmateriala, naturala, nekazaritzakoa, industriakoa, kulturala... "Hitza, Harria, Herria" deitzen dugu. Ondare inmateriala da "Hitza", zeraindarron hitza, gure kultura, gure bizitza azaltzeko etengabe darabilgun hitza. Gure hitzaren bidez bizipenak, langintzak, ospakizunak... adierazten ditugu. Hitz horrek, kontakizun horiek, bizipen horiek, gure komunitatearen kultura biltzen duten "Harria"-ra garamatza. "Harria" ondare materiala da: arkeologia, arkitektura, protoindustria, artzaintza, nekazaritza, basoa, meategia... Bide honen emaitza aipagarriena Auzolanetik Herrilanerako urratsa da. "Herria" etengabe sendotzen ari den zeraindarron jendartea da. Auzolanaren funtsa eta guna ezkortasuna da: oinarrizko zerbitzuak, azpiegiturak edo iraupenerako baliabideak falta direnean sortzen da auzolana. Zerainek beste urrats bat eman du, oinarrizko beharrak berdinduta, etorkizuna aurreikusi eta diseinatzerara igaro da. Etorkizuna bere egin du.

Zeraindarren partehartzearen bidez zerbitzuak antolatu eta moldatzen dira. Jendartearen gaitasunak auspotuz komunitatea indartu eta trinkotzen da. Etorkizun ekonomiko iraunkorrak ondarearen berreskurapena eta kudeaketa du muin. Aizpeako Meategiko Monumentu Multzoa, Aizkorri-Aratz Parke Naturala, Basaltegiko Hezegunea, Herriguneko Monumentu Multzoa, Herri Museoa, etab. gure historia eta istorioak jasotzen dituzte, eta era berean bisitariak erakartzeko amuak dira. Hauek gure nekazaritzako kalitatezko mozkinak eskuratuko dituzte. Honela turismoak gure Paisaia Kulturala mantentzen du.

Zerain Paisaia Kulturala zer da? Gure komunitateak, milaka urtetan, bizitzeko izan duen ingurumen naturala etengabe eraldatu du: artzaintzak, basogintzak, nekazaritzak, industriak... Hori geuk bakarrik egin dugu. Gure Kulturak sortu duen Paisaia hori hemen bakarrik dago. Kultura, bere arazoei irtenbideak bilatzeko geure herriak duen gaitasuna da. Paisaia Kulturala geure historia da eta, era berean, geure etorkizuna, geure etorkizun bakarra da. Paisaia geu da.

## **Mahai ingurua.**

**Moderatzailea: Dabid Anaut, euskara teknikaria.**



### 3. ARNASGUNEEN GARAPENA EUSKAL HERRITIK KANPO.

#### **Aland Uharteak.**

**Elisabeth Nauc ler, Aland Autonomia-eskualdeko ordezkaria Finlandiako parlamentuan.**

Aland Uharteek Finlandiako autonomia-eskualde suediera-hiztuna eta desmilitarizatua osatzen dute. 6.700 irlek osatzen dute autonomia-eskualde hori eta 27.153 biztanle dute.

Finlandiako Konstituzioaren arabera hizkuntza nazionalak finlandiera eta suediera dira, eta, ondorioz, herritar guztiei aitortzen zaie epaitegien edota beste agintarien aurrean edozein hizkuntza erabiltzeko aukera. Hala ere, Aland Uharteek autonomia-status berezia dute, bai eta hizkuntza-araudiari dagokionez ere.

1921eko ekainean Nazioen Ligaren Kontseiluaren erabaki baten arabera Finlandiak hartu zuen Aland Uharten subiranotasuna. Hala ere, Finlandiak zenbait konpromiso hartu behar izan zuen, besteak beste, Aland Uharteetako biztanleei hizkuntza, kultura eta ohitura suediarrek bermatzea.

Horrela, Aland Uharteak suedieraren arnasmunea direla ondoriozta dezakegu, eta hori bermatzearen arkitektura juridiko berezitua dago indarrean Finlandiako autonomia-eskualde horretan.

Esaterako, Aland Uharteetan biztanleria-eskubidea eskuratzeko suedieraren gaitasun egokia izan behar da; izan ere, suediera da Aland Uharteetako hizkuntza bakarra. Ondorioz, tokiko, eskualdeko zein Estatuko agintariek hizkuntz ahoi besteri kez dute erabiltzen autonomia-eskualdean. Hezkuntzari dagokionez, laguntza publikoak jasotzen dituzten ikastetxe guztiek suedieraz irakatsi behar dute.

Hitzaldia Aland Uharteetan indarrean dagoen araudiari buruzkoa izango da; eta horretarako aztergai izango dira autonomia-erkidego horretan eragiten duten legeak; besteak beste, Nazioen Ligaren Kontseiluaren Erabakia eta Hitzarmena, Finlandiako Hizkuntza Legea, Finlandiako Konstituzioaren hizkuntza-xehapenak eta Aland Uharteetako Autonomia Legerian suedierak duen babesa.



## **Gales.**

**Meirion Llywelyn Davies, hizkuntzalaria.**

### **Galesera eta hizkuntza-plangintza Galesen: galeseraren aldeko mugimenduaren hutsunerik handiena?**

VI. mendean galesera Britainia Handiko alde gehienetan mintzo zen, eta Europako idatzizko hizkuntzarik zaharrenetakoa da. 1536tik aurrera Batasunaren Lagaek galesaren erabilera debekatu zuen administrazio publikoan.

Galesko Industria-iraultzaren lehen olatua landa-eremuetatik industrializazio eremuetarako izan zen. Ondorioz, Industria-iraultzaren hasierako urteetan eremu industrial berri horietako hizkuntza galesa izan zen. Hala ere, XIX. mendearen amaieran, migrazioa mugaz kanpokoa izan zen eta, ondorioz, eremu horietako hizkuntza-komuna ere aldatu zen.

1911ko zentsuak agertu zuen galeserak hiztun gehien izan zuela, baina, lehenengoz, gutxiengoaren hizkuntza bihurtu zela populazioaren %43k hitz egiten zuelako.

Halere, eta gure jardunaldiari dagokienez, azpimarratu behar dugu 1960tik aurrera galeseraz bizi ziren eremuetan oporretarako etxeak arrisku bihurtu zirela. Horrela, etxebizitzak eraikitzea eta Ingalaterratik Galeserako immigrazioa arazo bihurtu ziren galeseraren eremuetan.

Herri eragileen presioaren ondorioz, 53/88 Zirkularra jarri zuten abian, eta, ondorioz, lur-eremuen erabileri buruzko zein plangintzari buruzko politikek galeseran izan zezaketen eragina ere kontuan hartu behar zen. Halere, 2004an egindako ikerketa batek agertu zuten azken 18 urtetan 27 erabakitan besterik ez zela kontuan hartu hizkuntzaren afera. Halere, arrakastarako ereduak ere izan ziren, esaterako, 1990ean Llangoed herrian 50 etxebizitza eraikitze baimena ez zuten eman, besteak bestea, galeseran izan zezakeen eraginarengatik.

Hartara, hitzaldi honetan azpimarratuko da oso garrantzitsua dela lurralde-antolaketarako plangintzetan hizkuntzaren gaia ere kontuan hartu izatea eta, beraz, horrek berriazko lege babesa izan beharko lukeela.

Horrekin batera Galesen izandako saiakeren berri emango da. bai eta orain arte hartu diren erabakiei buruzko irakurketa kritikoa agertu ere. Arestian esan bezala, Galesen aurreikusirako etxebizitza berriak eraikitze proiektuen kopurua oso handia da, eta horrek eragina zuzena izango du egoera soziolinguistikoan.





## **Flandria.**

**Wilfried Vandaele, Flandriako parlamentuko kidea.**

Belgika 1830ean sortu zen. Orduan, gutxiengo frantsesak gehiengo flandriarra menderatzen zuen, eta hizkuntza ofizial bakarra frantsesa zuen. XX. mendearen hasieran nederlandera ere hartu zuen estatus ofiziala, eta 1960. urtean hizkuntzaren mugak ezarri ziren.

Belgikako Estatuak lurraldetasun- eta pertsonaltasun-printzipioak aplikatzen ditu bi hizkuntza nagusien kudeaketarako, frantseserako eta nederlanderako hain zuzen ere. Nederlanderari dagokionez, Flandrian lurraldetasun-irizpidea aplikatzen da, baina Flandriaren barruan kokatzen den Brusela eremu elebiduna da, eta bertan herritartasun printzipioa aplikatzen dute.

Lan handia egin izan da Flandrian nederlanderaren berreskurapen-prozesuan eta hainbat eremutan erabilera normalizatua dago, hain zuzen ere, lurraldetasun printzipioa aplikatu zelako. Bestelako egoera da Bruselakoa, izan ere, eremu elebiduna izan arren, frantsesak izaten du nagusi izaten.

Hori horrela izanik, azken urteotan populazio-mugimenduak izan dira Brusela inguruko eremuetara, eta bertan, hizkuntza ofizial bakarra nederlandera izan arren, frantsesaren presioa sentitzen ari dira komunitate flandriarretan. Are gehiago, udalerrri batzuetan frantsesez jardun nahi duten herritarrei gero eta erraztasun gehiago jartzen zaizkie. Horri guztiari aurre egiteko, beste zenbait udalerririk nederlandera bermatzeko beste hainbat neurri hartu behar izan dute, etxebizitza publikoen alokairuan, etxebizitza berriak eraikitzeko, oinarrizko soldata jasotzeko. Halere, nahi baino gehiagotan halako erabakiek ez dute zenbait auzitegiaren oniritziarik jaso.

## **Mahai ingurua.**

**Moderatzailea: Paul Bilbao, Kontseiluko Idazkari Nagusia.**



#### 4. LURRALDE-ANTOLAKETA ETA GIZARTE ERANTZUKIZUNA.

##### **Lurralde-antolakuntza eta komunitatearen garapena.**

**Igor Ahedo, UPV/EHUko irakaslea.**

Lurralde-antolakuntza komunitatearen garapenerako estrategia bat diseinatzeko motorra izan daiteke. Izan ere, lurraldean dauden eragileak (gubernariak, teknikariak, herritar antolatuak zein desantolatuak) mobilizatu ditzake, parte-hartzean oinarritutako garapen-estrategia integralak diseinatzea helburu. Tradizioz, jakintza-arloen banaketak eragin du politika publikoak modu sektorialean diseinatzea, transbertsalitatea erronka zaila bihurtuz. Halaber, herritarrekin batera diseinatutako politika publikoak komunitaterako onurak maximizatzeko bide bakarra bihurtu dira, gero eta modu argiagoan. Hortaz, lurralde-antolakuntza komunitatea egituratzeko dinamika bat martxan jartzeko aitzakia izan daiteke, bai eta lurraldearen gainean adierazpena duten politika publikoak —hizkuntzarenak, kulturalak, generoaren alorrekoak, ekonomikoak— modu transbertsanean diseinatzeko eragilea ere.

Hortaz, proposamen metodologiko bat aurkeztuko dugu, hurrengo helburuarekin: erakustea lurralde-plangintza kulturaren, ekonomiaren, generoaren eta hizkuntzaren alorretako beharrek batera aztertu behar dela. Alegia, lurraldea planifikatzeko estrategiak, eta, zehazkiago, Hiriak Antolatzeko Plan Orokorren diseinuak, baliatu daitezkeela hirigintza-plangintza eta beste plangintza sektorial batzuk modu koherentean uztartzea bermatuko duten prozesu partehartzaileak abiatzeko.




## Lurraldearen garapena eta euskara.

Zigor Etxeburua, Euskararako Zuzendari Nagusia eta Ugaitz Iturbe, Lurralde Garapeneko Zuzendaritza, Gipuzkoako Foru Aldundia.

Hizkuntza lurrari atxikitzen zaio. Lurrak moldatu ditu hizkuntzak, batzuei eskaintzen dizkien kolore izen batzuk beste batzuei ukatuz, edo elementu jakin batzuen ugaritasunari esker toponimo aberatsa sortuz... Baina ezarri al die lurrak mugarik hizkuntzei?

Uste izatekoa da batetik bestera zebiltzan gizaki nomadentzako mendi garaiak oztopo bat izango zirela, nolabaiteko muga eta, beraz, gizaki horien lurraldea eta, bide batez, hizkuntza zedarrituko zituztela alde horretan. Baina argi ikusten da orografia eta geografia fisikoa ez direla pertsonentzako ezta hizkuntzentzako ere traba izan. Gizakiok gai izan gara hizkuntza geurekin eramateko batetik bestera; areago, lurra bera eraldatzeko gai izan gara eta, zer esanik ez, gizakiak mendean hartzeko 'trebe' ere, tamalez. Eta hor sortzen da kezka. Mendiak itsasoaren mailarekin berdintzeko gai gara, haran eta ibai zabalak lotu dira ingeniariaren emaitza harrigarri diren zubi erraldoiekin...eta hori guztia pertsonen mesedetan, omen.



Millauko biaduktua  
(Zientzia.net)

Agintari askoren begietan lurraldea plano bat da, lego erraldoi bat. Ez da kontuan hartzen planoan atzamarra jartzen den tokian bertan, errealitatean, jendea bizi daitekeenik, ingurune berezi bat dagoenik. Areago, jendea badela edo zaindu beharreko eremu bat dagoela ohartuz gero, oztopo gisa ikusten da, edo ezikusiarrena egiten.



Altza (Donostia). Altza Historia Mintegia / Google Maps

Gutxi batzuek aberasteko duten grinarengatik, garapen ekonomiko azkarra eta gainbalioa metatzeko nahia jartzen dituzte beste ezeren aurretik. Kapitalismo basatia eta globalizazioa, jaun eta jabe.

Posible al da lurraldearen garapen eutsigarri bat, gizatasunaren, etikaren, justiziaren, ekologiaren eta kulturaren balioak zainduko eta indartuko dituen?



## **Arnasguneak euskararen normalizazio-prozesuan.**

**Iker Salaberria, Kontseiluko koordinatzailea.**

Euskararen arnasguneak, euskara nagusi den eremuak dira. Eremu horietan euskal hiztunak dira gehiengo eta bertan hizkuntza normalena edo naturalena euskara da. Horrela, transmititzen zaio bertaratzen den edonori ere eta arau edo betekizun espliziturik ezarri ez arren, eremu horietan euskara beharrezko bilakatzen da.

Analogia bat egingo bagenu, Amazoniarekin pareka genitzake arnasguneak. Horrela, amazoniak munduari oxigenoa ematen dion bezala, arnasguneek euskararen normalizazioari oxigenoa ematen diote, elikatu egiten dute. Euskaldunok gainera, lasai hartu dezakegu arnas eremu horietan. Bai baitakigu bertan euskara hitz egitea dela normalena eta ez dugula inolako oztoporik jasango euskaraz mintzatu izanagatik.

Arnasguneez ari garenean udalerrri euskaldunak datozkigu maiz burura, baina, eremu soziofuntzionalak ere izan litezke arnasgune. Horrela, ikastetxeak, aisialdi taldeak, lantokiak,... hainbat eremu, ingurune erdaldunetan egonagatik arnasgune izan litezke.

Arnasguneak euskararen normalizazioaren abiapuntu eta helmuga dira. Euskararen normalizazioa, finean, arnasguneen hedatzea izango da. Horrela, arnasgune izateko aukera gehien duten eremuak arnasgune bilakatzean dago gakoak. Arnasguneetan dagoen indarra baliatuz, euskararen normalizazioa horien ingurura hedatzea da, beraz, bultzatu beharreko prozesua. Horregatik, diogu, arnasguneak abiapuntu eta helmuga direla.

Sistema konplexuen teoriatik ere irakur genezake arnasguneen fenomenoak. Kasu horretan ikusten da, arnasguneak sistema irekiak direla, euren autonomia eta autoerregulazio gaitasuna izan dutenak. Baina, azken denboran, ahultze prozesu bat eman den zenbati zantzu jaso da. Hori erraz uler liteke, ikuspegi honetatik. Batez ere, bi faktore aintzat hartuta: batetik, eremu horien irekitasuna areagotu eta inguruarekiko autonomia murriztu da egungo gizartean. Hedabideek, teknologia berriek, errepideek,... hori bultzatu dute. Bestetik, inguru horietan gizarte-molde berriak harreman sareak eta autoerregulatzeko gaitasuna ahuldu ditu. Beraz, arnasguneak berrindartzeko premia dago. Horretarako, ondorengo neurriak abiapuntu egokia ezarri dezakete:

- Jendea kontzientziatzea eta ahalmentzea.
- Arnasguneetako instituzioak hizkuntza-politika ausartagoak egiteko ahalmentu.
- Kanpotik arnasguneei eragin diezaioketen eskuhartzeak zaindu
- Arnasguneak hedatu.



## **Arnasguneak euskararen normalizazio-prozesuan.**

**Miren Segurola, UEMAko koordinatzailea.**

Udaleri Euskaldunen Mankomunitatea 1991n sortu zuten, Aizarnazabalen, 17 udalek. UEMAn biztanleen %70etik gora euskaldunak ziren herrietako udalak biltzen ziren.

UEMAk hiru helburu nagusi jarri zituen:

- 1. Udaleri euskaldunetan herritarrek egiten duten bizitza sozial guztia, publikoa zein pribatua euskaraz izan dadin bideak urratzea.** Garai hartako disfuntzio egoerari aurre egiteko asmoz jarri zen helburua zen lehenengoa, herri horietan bizitza sozial guztia euskaraz bazen ere, bizitzako hainbat funtzio erdarek erabat bereganatuak zituztelako (administrazioa...).
- 2. Udaleri euskaldun guztiek bat eginik, euskara nagusi izango den lur-gunea osatzea.** Gizarteko funtzio guztiak euskaraz egingo ziren lurralde bat euskararen geroa bermatzeko ezinbestekoa zela ulertzen zelako.
- 3. Udaleri euskaldunen garapen sozioekonomiko eta soziokulturala bultzatzea.** Garai hartan UEMARA bildu ziren udalerriak oso txikiak zirelako, eta jendez usteko arriskua ikusten zutelako.

Hiru xede horiek eta erronka nagusi bat zuen eta du oraindik UEMAK: **Arnasgune linguistiko kulturalaren lurralde-sarea osatzea eta ahalmentzea.**

23 urteko esperientziaren ondorioz, udaleri euskaldunetan, egoera soziolinguistikoan eragiten duten faktore ezberdin asko daudela konturatu gara; eta edozein motatako esku-hartzeek hizkuntzarengan eragina izan dezaketela, bereziki lurralde garapenari eta antolaketari lotutako esku-hartzeek.

Gaur egun, 188 udaleri euskaldun daude, euskararen indizearen arabera (euskaldunak + (ia euskaldunak /2)), eta horietatik 72 daude UEMAn. Euskal Herri mailan begiratuta, udalerrien % 27 udaleri euskaldunak dira, baina Euskal Herriko biztanleen %12 bizi da udaleri euskaldunetan.

Gipuzkoa da herrialderik euskaldunena. 68 udaleri euskaldun daude eta 20 ez euskaldun, baina hala ere, biztanleen %68 udaleri ez euskaldunetan bizi da.

Hizkuntza politika integralak behar ditugu. Nola ulertzen dugu hizkuntza politika integrala?

1. Arnasguneen aitortza ofiziala
2. Legea hizkuntzaren beharretara egokitu. Zertarako?
  - a. Hizkuntza politika aurrerakoiak egiteko. Gaur egun oraindik legea muga dugulako.
  - b. Arnasguneak babesteko. Arnasguneak babestu, biotopoak babesten diren bezala.

Horrela, Arnasguneen hedapenetik, Euskal Herri euskalduna lortu ahalko dugu.

UEMAk udaleri euskaldunetara begira, hiru ildo estrategiko ditu gaur egun:

1. Arnasguneen erabateko normalizazioa: euskaraz bizitzeko dauden oztopoak gainditzen joatea, udal administraziotik bertatik hasita. Administrazioa eredu.
2. Hiztun komunitatea eragitea. Hizkuntza komunitatearen jabekuntza, harrotasuna eta erantzukizuna.
3. Arnasguneen zaintza edo babesa. Udaleri euskaldunetan garapen sozioekonomiko eta soziokultural jasangarria bermatzea.

## **5. ONDORIOAK ETA ETORKIZUNERAKO ERRONKAK.**

**Jardunaldiaren Batzorde Akademikoa: Unai Fernandez de Betoño (UEU), Paul Bilbao (Kontseilua) eta Iñigo Urrutia (UEMA).**